

Compte rendu de la réunion du Syndicat Mixte GARBIKI
de collecte des déchets ménagers et assimilés
Mercredi 01 décembre 2015 à 20 heures 30

Etxeko hondakinen eta idurikoen biltzeko GARBIKI Sindikatu Anitzaren bilkura txostena 2015eko abenduaren 1.ean, asteazkenarekin, 20:30ean.

Présents / Hor zirenak : ARBELETCHÉ Sylvie, DUHALDE Maïté, BERNARD Claude, LOUIT Sophie, INCHAUSPE Beñat, ALKHAT Antton, OLHATS Jean-Michel, LACOSTE Xavier, DACHARY Jean-Pierre, DARRITCHON Maylis, BISCAICHIPY Maïté, ETCHELECU Alain, HARGOUS Jean-Michel, HARISTOY Jean-Marie, EDOUARD Claude.

Absent(s) représenté(s) ou ayant donné procuration / Falta zirenak baina ordezkari bat edo prokurazioa zutenak : CLAVERIE Dominique (représenté par ETCHELECU Alain).

Absent(s) non représenté(s) et n'ayant pas donné de procuration / Falta zirenak, ordezkaririk eta prokuraziorik gabe : ARMENDARIZ Alain.

Le Comité Syndical s'est réuni le Mercredi 01 décembre 2015 à 20 heures 30 à l'immeuble "ARY" à HASPARREN.

Sindikatu Batzordea 2015eko abenduaren 1.ean bildu da, asteazkenarekin, 20:30ean, Hazparneko ARY eraikinean.

1 / Approbation du compte rendu du Comité Syndical du 15/04/15 :

Le compte rendu de la séance du 15 avril 2015 est approuvé à l'unanimité.

2 / Désignation d'un secrétaire de séance :

Madame Maylis DARRITCHON est désignée à l'unanimité comme secrétaire de séance.

3 / Consultation pour avis sur le projet de Schéma Départemental de Coopération Intercommunale (SDCI) :

Monsieur le Président rappelle que le Gouvernement a engagé une importante réforme de notre organisation territoriale. Cette réforme s'est matérialisée par la loi portant Nouvelle Organisation Territoriale de la République dite loi NOTRe du 07/08/2015. Cette loi confie aux Préfets le soin de préparer et de mettre en œuvre un Schéma Départemental de Coopération Intercommunale (SDCI).

1 / 2015/04/15eko Sindikatu Batzordearen txostenaren onartzea:

2015eko apirilaren 15eko bilkurako txostena aho batez onartua izan da.

2 / Bilkurako idazkariaren izendatzea:

Maylis DARRITCHON anderea aho batez bilkurako idazkari izendatua izan da.

3 / Herriarteko Lankidetzako Departamendu Eskemari (HLDE) buruzko iritziaren emateko kontsulta:

Jaun Lehendakariak oroitarazi du Gobernu gure lurralde antolaketaren erreforma handi batean sartu dela. Erreforma hori 2015/08/07ko NOTRe (Errepublikaren Lurralde Antolaketa Berria) legean gauzatu da. Lege horrek Prefeten esku uzten du Herriarteko Lankidetzako Departamendu Eskema (HLDE) baten prestatzea eta obratzea.

Ce nouveau schéma doit se traduire par des modifications de périmètres et de fusions d'EPCI à fiscalité propre mais aussi par une réduction significative du nombre de syndicats intercommunaux et de syndicats mixtes.

Par courrier du 29/09/15, le Préfet nous a transmis le projet de SDCI et nous a informé qu'il appartenait aux conseils municipaux et organes délibérants des EPCI concernés d'émettre un avis simple - dans un délai de deux mois à compter de la notification par voie postale - sur ce projet et ce, en application de l'article L. 5210-1-1 du Code Général des Collectivités Territoriales (CGCT).

Après avoir rappelé à l'assemblée délibérante que le projet de SDCI prévoit la constitution d'un EPCI unique à l'échelle du Pays Basque au 01/01/2017 et par voie de conséquence, la suppression du Syndicat Mixte Garbiki, Monsieur le Président précise que cet avis simple - dépourvu de portée décisionnelle - est destiné à éclairer le représentant de l'Etat, à l'initiative des propositions émises, ainsi que les membres de la Commission Départementale de Coopération Intercommunale en charge d'examiner et le cas échéant, de faire évoluer le projet initial.

Monsieur le Président se dit favorable quant à la proposition formulée par le Préfet tout en précisant que plusieurs points méritent d'être précisés. Il conviendra ainsi de s'entendre sur :

- Un système de gouvernance garantissant une représentation équilibrée des populations et des territoires.
- Une organisation territoriale garantissant une gestion de proximité sur les périmètres des 10 EPCI actuels.
- Une harmonisation fiscale.

Monsieur Xavier LACOSTE rajoute qu'un travail d'approfondissement est actuellement mené sous l'égide du Conseil des Elus. Ces travaux doivent permettre de définir les grands principes du futur pacte de gouvernance de l'EPCI unique et la production d'un mémento destiné à l'ensemble des élus du Pays Basque.

Monsieur le Président propose de passer au vote à bulletin secret.

Eskema berri horren ondorioz, berezko zerga sistema duten Herriarteko Lankidetzako Erakunde Publikoen (HLEP) eremu aldaketak eta bateratzeak gertatuko dira, bai eta herriarteko sindikatuen eta sindikatu anitzen kopuruaren ttipitze handia.

2015/09/29ko gutunaren bidez, Prefetak HLDE egitasmoa igorri digu eta jakinarazi digu herriko kontseiluen eta hunki HLEPetako organo erabakitzaileen gain zela egitasmo horri buruzko iritzi sinplea ematea – gutunaz jakin eta bi hilabeteko epean – eta hori, Lekuko Elkargoen Kode Orokorraren (LEKO) L. 5210-1-1 artikulua betearaziz.

Biltzar erabakitzaileari oroitarazi ondoan HLDE egitasmoak 2017/01/01ean Euskal Herri mailako HLEP bakarra osatzea aurreikusten duela eta, ondorioz, Garbiki Sindikatu Anitzaren desagertzea, Jaun Lehendakariak zehaztu du balio erabakitzaileak ez duen iritzi sinple horren xedea dela - egin proposamenei buruz - Estatuaren ordezkariaren eta Herriarteko Lankidetzako Erakunde Publikoko kideen argitzea, horien gain baita hastapeneko egitasmoaren aztertzea eta, beharrez, aldatzea.

Jaun Lehendakaria Prefetak egin proposamenaren alde agertu da, hainbat puntu zehaztu beharrekoak direla erranez. Adibidez, ondokoak argitu beharko dira:

- Bizilagunen eta lurraldeen ordezkariak orekatua zehaztuko duen gobernantza sistema.
- Gaur egungo 10 HLEPen eremuan hurbileko kudeaketa bermatuko duen lurralde antolaketa.
- Zerga alorreko harmonizatzea.

Xavier LACOSTE Jaunak gehitu du Hautetsien Kontseilua sakontze lana artoski burutzen ari dela. Lan horiei esker, HLEP bakarraren gobernantza hitzarmenaren printzipio nagusiak finkatzen ahalko dira eta Euskal Herriko hautetsi guziei zuzendu oroitzkribu bat egingen da.

Jaun Lehendakariak isilpean bozkatzea proposatu du.

Pour : 13 - Contre : 2 - Abstention : 0

Accord à la majorité du Conseil Communautaire.

De plus, à l'unanimité, les Conseillers Syndicaux présents ont fait valoir de manière très déterminée et fortement exprimée leur souhait de voir l'ensemble des personnes impactés par la disparition des Syndicats de Communes et des Communautés de Communes conserver leur emploi au sein de la nouvelle structure en tenant compte de leur situation administrative et fonctionnelle.

De même, ils souhaitent voir maintenus sur le territoire de la future entité intercommunale des centres fonctionnels de proximité au niveau des prestations techniques qui l'imposent, comme par exemple la collecte des déchets, les transports scolaires, la gestion des services de l'eau et de d'assainissement si cette compétence venait à être transférée ; ceci, quelles que soient les préconisations des ateliers en cours de travail sur la gouvernance, les compétences et les ressources financières et humaines, qui doivent éclairer les élus pour le vote décisionnel du printemps prochain sur la création de cet EPCI.

4 /Convention de télétransmission des actes soumis au contrôle de légalité - Passation de l'avenant n° 1 :

Monsieur le Président rappelle que le Comité Syndical s'est engagé en faveur de la dématérialisation des procédures qui constitue un axe majeur de la modernisation de l'administration à l'échelle du territoire national.

Une convention relative à la télétransmission des actes a ainsi été signée avec Monsieur le Préfet en date du 19/05/2010 afin de dématérialiser certains actes soumis au contrôle de légalité via l'application ACTES (Aide au Contrôle et à la Transmission Electronique Sécurisée).

Ce programme ACTES conçu par le Ministère de l'Intérieur comporte un nouveau module « ACTES Budgétaires » qui offre la possibilité aux collectivités de dématérialiser les documents budgétaires (budgets primitifs, budgets supplémentaires, budgets annexes, comptes administratifs).

Alde: 13 - Kontra: 2 - Abstentzioak: 0

Elkargoko Kontseilua gehiengoz ados agertu da.

Gainera, aho batez, hor zeuden Sindikatuko ordezkariak biziki deliberatuki adierazi dute nahi dutela Herri Sindikatuen eta Herri Elkargoen desagertzeak hunki pertsona guziek egitura berrian beren lana atxik dezaten, beren egoera administratiboa eta funtzioa kontuan hartuz.

Gisa berean, nahi dute etorkizuneko herriarteko egituraren eremuan behar diren hurbileko zerbitzu teknikoen funtzionamendu zentroak atxikiak izan daitezen, hala nola hondakinen bilketa, eskolako garraioak, uraren zerbitzua eta uraren garbitzekoa, sekula eskumen hori transferitua balitz; hori, edozein izanik ere HLEP horren sortzeari buruzko bozka erabakigarrian hautetsien argitzeko xedez gobernantza, eskumenak eta diru eta jende baliabideak lantzen ari diren lantaldeen gomendioak.

4 /Legezkotasunaren kontrola iragan behar duten agirien teletransmisio hitzarmena - 1. gehigarriaren hitzartzea:

Jaun Lehendakariak oroitarazi du Sindikatuko Batzordea engaiatu dela prozeduren desmaterializazioaren alde, hori, nazio mailan, administrazioaren modernizazioaren ardatz nagusietarik baita.

Beraz, agirien teletransmisio hitzarmen bat izenpetu da 2010/05/19ko egunean, Jaun Prefetarekin, legezkotasunaren kontrola iragan behar duten agiri batzuen desmaterializatzeko gisan, ACTES (Kontrolaren eta Transmisio Elektronikoaren Segurtasunaren aldeko Laguntza) aplikazioari esker.

Barne Ministerioak sortu ACTES programa horrek «ACTES Budgétaires» modulu berri bat badu. Horrek elkargoei buxeteko dokumentuen desmaterializatzeko posibilitatea eskaintzen die (jatorrizko buxetak, buxet gehigarriak, buxet osagarriak, administrazio kontuak).

Il est aujourd'hui proposé de :

Gaur egun, hola osatua da:

- Adhérer au dispositif « ACTES Budgétaires » pour télétransmettre les documents budgétaires de la collectivité.
- Autoriser Monsieur le Président ou son représentant à signer l'avenant n°1 à la convention de télétransmission des actes pour y intégrer ce nouveau module.

- «ACTES Budgétaires» baliabideko kide bilakatu, elkargoko buxeteko dokumentuen teletransmitzeko.
- Jaun Lehendakariari edo haren ordezkariari teletransmisio hitzarmeneko 1. gehigarriaren izenpetzeko baimena eman, bertan modulu berri horren sartzeko.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Jaun Lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Accord à l'unanimité du Conseil Communautaire.

Elkargoko Kontseilua aho batez ados agertu da.

5 / Budget Principal - Décision Modificative 2015/01 :

Monsieur le Président indique qu'il est proposé au Comité Syndical de voter la Décision Modificative 2015/01 suivante :

5 / Buxet Nagusia – 2015/01eko Erabaki aldatzailea:

Jaun Lehendakariak adierazi du Sindikatu Batzordeari proposatua zaiola ondoko 2015/01eko Erabaki Aldatzailearen bozkatzea:

<i>SECTION DE FONCTIONNEMENT</i>	<i>FUNTZIONAMENDU SAILA</i>
----------------------------------	-----------------------------

1 / DEPENSES GASTUAK

Article 64131 : Rémunération non-titulaire	+ 3 000.00 €
Article 6068 : Matériel et Fournitures de collecte	+ 6 000.00 €
Article 6554 : Participation à Bil Ta Garbi	- 9 000.00 €
Article 023 : Virement à la Section d'Investissement	+ 48 000.00 €

2 / RECETTES IRABAZIAK

Article 722 : Travaux en régie (Voirie)	+ 48 000.00 €
---	---------------

<i>SECTION D'INVESTISSEMENT</i>	<i>INBERTSIO SAILA</i>
---------------------------------	------------------------

1 / DEPENSES GASTUAK

Article 2158 : Travaux en régie (Voirie)	+ 48 000.00 €
--	---------------

2 / RECETTES IRABAZIAK

Article 021 : Virement à la Section de Fonctionnement	+ 48 000.00 €
---	---------------

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Jaun Lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Accord à l'unanimité du Conseil Communautaire.

Elkargoko Kontseilua aho batez ados agertu da.

6 / Admission de créances en non-valeur :

Monsieur le Président indique que dans le cadre de l'apurement périodique des comptes entre l'ordonnateur et le comptable, la Trésorerie de Hasparren nous propose l'admission en non-valeurs d'une créance détenue par le syndicat mixte pour un montant de 36.70 €

Il est proposé au Comité Syndical d'approuver cette admission en non-valeur.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Conseil Communautaire.

7 / Autorisation d'engager, de liquider et de mandater des dépenses d'investissement avant l'adoption du Budget Primitif 2016 :

Monsieur le Président rappelle que la loi n° 88-13 du 05 janvier 1988 modifiée a introduit dans le Code Général des Collectivités Territoriales, l'article L 1612-1 qui permet à l'exécutif d'une collectivité territoriale d'engager, de liquider et de mandater des dépenses d'investissement avant l'adoption du budget dans la limite du ¼ des crédits ouverts au budget de l'exercice précédent - non compris les crédits afférents au remboursement de la dette et aux restes à réaliser -.

Dans ce cadre, il est proposé au Comité Syndical d'autoriser Monsieur le Président à utiliser pour le budget 2016 cette disposition dans le respect des limites énoncées ci-dessous :

- Chapitre 21 - Immobilisations corporelles : 50 000 € TTC.
- Chapitre 23 - Immobilisations en cours : 20 000 € TTC.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Conseil Communautaire.

6 / Hartze agiria baliorik gabeko gisa onartzea:

Jaun Lehendakariak adierazi du, ordenatzailearen eta kontu egilearen artean aldika egiten den kontuen egiaztatzearen kariatara, Hazparneko diruzaintzak sindikatu mistoak daukan 36.70 €-ko hartze agiri bat baliorik gabeko gisa onartzea proposatu digula.

Sindikatu Batzordeari proposatua zaio hartze agiri hori baliorik gabeko gisa onartzea.

Jaun Lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Elkargoko Kontseilua aho batez ados agertu da.

7 / 2016ko Jatorrizko Buxeta onartu aitzin, inbertsio gastuak abiatzeko, garbitzeko, eta norbaiti ahala emateko baimena:

Jaun Lehendakariak oroitarazi du 1988ko urtarrilaren 5eko 88-13. lege aldatuak Lekuko Elkargoen Kode Orokorrean L 1612-1 artikulua sartu duela, zeinak lurralde elkargo baten batzorde betearazleari - buxeta onartu aitzin - inbertsio gastuak abiatzeko, garbitzeko, eta norbaiti ahala emateko ahala ematen baitio, aitzineko buxetean ireki kredituen laurdeneko mugarekin - zorraren ordaintzeari dagozkion kredituak eta gelditzen diren egin beharrekoak kanpo -.

Karia honetara, Sindikatu Batzordeari proposatua zaio Jaun Lehendakariari 2016ko buxetarentzat neurri horren baliatzeko baimena ematea, ondoko mugak errespetatuz:

- 21. kapitulua - Gorputz immobilizazioak: 50 000 €, zergak barne (TTC).
- 23. kapitulua - Egiten ari diren immobilizazioak: 20 000 €, zergak barne (TTC).

Jaun Lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Elkargoko Kontseilua aho batez ados agertu da.

8 / Modification du tableau des effectifs :

Monsieur le Président rappelle qu'il est proposé au Comité Syndical de modifier le tableau des effectifs de la manière suivante :

8 / Langileen taularen aldatzea:

Jaun Lehendakariak oroitarazi du Sindikatu Batzordeari langileen taularen aldatzea proposatua zaiola, ondoko moldean:

Grades Mailak	Modification du nombre de postes Lanpostu kopuruaren aldatzea	Total des postes après modification Lanpostu kopurua, aldatu ondotik
Adjoint technique de 1ère classe <i>1. mailako laguntzaile teknikoa</i>	- 1	0
Adjoint technique ppal de 2nd classe <i>2. mailako laguntzaile tekniko nagusia</i>	+ 1	3

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Conseil Communautaire.

9 / Equipement de collecte et de valorisation des déchets ménagers et assimilés - Actualisation des tarifs :

Monsieur le Président indique qu'il est proposé au Comité Syndical de fixer - à compter du 01/01/16 - les tarifs suivants :

- Remplacement de la serrure d'un bac OM individuel (consécutif à la perte des clefs) : 10 €
- Remplacement du badge d'une colonne : 5 €
- Participation à l'octroi d'un bac de 240 litres : 20 €
- Participation à l'octroi d'un bac de 360 litres : 40 €
- Acquisition en l'état d'un bac d'occasion de 1 m³ : 20 €
- Location Borne à verre : 120 € / an.
- Mise à disposition d'un composteur : 10 €
- Mise à disposition d'un lombricomposteur : 10 €

Ces tarifs s'appliqueront dans le respect du règlement de collecte en vigueur.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Jaun Lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Elkargoko Kontseilua aho batez ados agertu da.

9 / Etxeko hondakin eta idurikoak biltzeko ekipamendua - Tarifen eguneratzea:

Jaun Lehendakariak adierazi du Sindikatu Batzordeari proposatua zaiola ondoko tarifen finkatzea, 2016/01/01etik goiti:

- Etxeko hondakinen ontzi indibidual baten sarrailaren ordezkatzeta (gakoak galduz geroz): 10 €
- Zutabe baten pasa-txartelaren ordezkatzeta: 5 €
- 240 litroko ontzi baten eskuratzeko parte hartzea: 20 €
- 360 litroko ontzi baten eskuratzeko parte hartzea: 40 €
- m³ bateko bigarren eskuko ontzi bat den bezala erostea: 20 €
- Berinaki ontzi baten alokatzea: 120 €, urteko
- Konpostagailu indibidual baten uztea: 10 €
- Zizare-konpostagailu indibidual baten uztea: 10 €

Prezio horiek bilketaren araudien arabera aplikatuko dira.

Jaun Lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Accord à l'unanimité du Conseil Communautaire.

Elkargoko Kontseilua aho batez ados agertu da.

10 / Avenant au Contrat de Territoire du Pays de Hasparren 2013-2016 :

Monsieur le Président rappelle que par délibération du 29/11/2012, le Département des Pyrénées Atlantiques s'est engagé dans une politique contractuelle de soutien aux territoires. Cette politique s'adresse aux acteurs locaux sur le périmètre des territoires intercommunaux. Elle s'appuie sur le partage des enjeux de développement territorial et vise à soutenir les projets d'investissement sur la période 2013-2016.

Par délibération en date du 25/06/2015, le Département a voté des assouplissements dont notamment le recul de la date limite de transmission des factures acquittées au 30/09/2017.

Afin de mener à terme les 31 Contrats Territoriaux, le Département propose de signer des avenants avec l'ensemble des Maîtres d'ouvrage et ce, afin de prendre en compte les actualisations des programmes d'investissements dans le respect des enveloppes territoriales.

Dans ce cadre, il est proposé au Comité Syndical de :

- Valider l'avenant au Contrat de Territoire du Pays de Hasparren.
- Autoriser Monsieur le Président à le signer.

Monsieur le Président propose de passer au vote.

Accord à l'unanimité du Conseil Communautaire.

11 / Questions diverses :

- **Planning de mise en place des Bacs individuels :**

Monsieur le Président fait un point d'étape sur le déploiement du nouveau système de collecte :

- La mise en place de bacs individuels - dans les zones en habitat diffus - se poursuit et parmi les communes s'étant positionnés pour accueillir ces nouveaux bacs, les communes de Hélette, Irissarry, Lantabat et Saint Esteben restent à équiper.

10 / 2016ko Hazparneko Lurraldeko kontratuan sartu gehigarria:

Jaun Lehendakariak oroitarazi du, 2012/11/29ko deliberamenduaren bidez, Pirinio Atlantikoetako Departamendua lurraldeen sustengatzeko kontratuzko politika batean engaiatua dela. Politika hori lekuko eragileei zuzentzen zaie, herriarteko lurraldeen eremuan. Lurralde garapeneko desafioen partekatzean oinarritzen da eta 2013-2016 denboraldian inbertsio egitasmoen sustengatzea du xede.

2015/06/25ean bozkatu deliberamenduaren bidez, Departamenduak malgutzeak bozkatu ditu, horien artean, bereziki, 2017/09/30ean ordaindu fakturen helarazteko azken epea gibelatzea.

Hogeita hamaika Lurralde Kontratuak bururaino eramateko gisan, Departamenduak proposatzen du Obralari guziekin gehigarriak izenpetzea, inbertsio programen eguneratzeak kontuan hartzeko, lurralde aurrekontuak errespetatuz.

Karia honetara, Sindikatu Batzordeari proposatua zaio:

- Hazparneko Lurraldeko kontratuan sartu gehigarria ontzat ematea.
- Jaun Lehendakariari horren izenpetzeko baimena ematea.

Jaun Lehendakariak bozkatzea proposatu du.

Elkargoko Kontseilua aho batez ados agertu da.

11 / Gai ezberdinak:

- **Ontzi indibidualak plantan emateko egutegia:**

Jaun Lehendakariak puntu bat egin du bilketa sistema berriaren plantan ezartzeaz:

- Bizitegi barreatutako eremuetan ontzi indibidualen plantan emateak segitzen du eta ontzi berri horien hartzeko prest agertu diren herrien artean, Heleta, Irisarri, Landibarre eta Donoxtiri oraino ekipatzekoak dira.

- L'installation de colonnes semi-enterrées sur la commune de Briscous se termine. Les communes d'Ayherre, Bonloc, La Bastide Clairence, Macaye et Mendionde se sont, d'ores et déjà, positionnées pour équiper ainsi les centres bourgs.

Monsieur le Président précise qu'actuellement les colonnes sont uniquement destinées au ramassage des ordures ménagères brutes. La possibilité d'étendre ce mode de collecte à d'autres flux (emballages, verre, ...) méritera d'être posée.

- **Point d'étape sur la Décharge d'Iholdy :**

Monsieur le Président fait un point d'étape sur la décharge d'Iholdy. Ce site a été réhabilité en 2008 mais un glissement de terrain a depuis eu lieu.

Ce désordre s'étant déroulé lors des fortes précipitations enregistrées au Pays Basque le 04/07/14, le maître d'œuvre s'est désengagé de toute responsabilité et la situation est actuellement bloquée.

Monsieur le Président se dit prêt à accompagner la commune d'Iholdy dans une procédure contentieuse tout en précisant que cette action s'annonce difficile.

- **Opération de collecte des pneus agricoles usagés :**

Monsieur le Président rappelle que par délibération en date du 15/04/2015, le Comité Syndical a mis en place une Commission de Travail ayant pour en charge de réfléchir à la mise en place de filières collectives de valorisation moins onéreuses et ce, en partenariat avec le Service Agriculture du Conseil Général et la Chambre d'agriculture.

Le recensement du gisement potentiel a depuis eu lieu (20 réponses pour environ 2 000 pneus).

Il convient cependant de déplorer le désengagement brutal de la Chambre d'Agriculture dans ce dossier.

Le Comité Syndical décide d'adresser à la Chambre d'Agriculture un courrier manifestant son mécontentement.

- Beskoitzen, erdi lurperatuak diren zutabeen ezartzea bururatzan ari da. Aiherra, Lekuine, Bastida, Makea eta Lekorne jada prest agertu dira herri barneak gisa hortan ekipatzeko.

Jaun Lehendakariak zehazten du mementoan zutabeak etxeko hondakin gordinen biltzeko direla bakarrik. Bilketa molde hori beste hondakin batzuetara zabaltzeko posibilitatea (estalkiak, berinakiak, ...) aztertu beharko da.

- **Puntu bat Iholdiko hondakindegiaz:**

Jaun Lehendakariak Iholdiko hondakindegiaz puntu bat egin du. Gune hau 2008an berritua izan da baina, geroztik, lurra litatu da.

Desmasia hori Euskal Herrian 2014/07/04an izan euri azkarren denboran gertatu baita, obralariak ez du neholako erantzukizunik bere gain hartu eta, mementoko, egoera blokatua da.

Jaun Lehendakaria prest agertu da Iholdiko herria auzibidean laguntzeko, hala ere egintza zaila izanen dela zehaztuz.

- **Laborantzako errota kautxu higatuen biltzeko operazioa:**

Jaun Lehendakariak oroitarazi du, 2015/04/15eko deliberamenduaren bidez, Sindikatu Batzordeak hondakinei balioa emateko sare merkeago batzuen antolatzea gogoetatzeko Lan Batzorde bat plantan ezarri duela, Kontseilu Nagusiko Laborantza Zerbitzuarekin eta Laborantza Ganbararekin partaidetzan.

Geroztik, bil daitezkeen errota kautxu higatuak zerrendatu dira (20 ihardespun, nonbait han 2 000 errota kautxu).

Baina Laborantza Ganbarak dossier horretan tupustean gibel egin duela deitoratu behar da.

Sindikatu Batzordeak erabaki du Laborantza Ganbarari idaztea, bere atsekabearen adierazteko.

La séance est levée à 22 H 00
Bilkura 22:00etan bururatu da